

noauea

**Dani Iturbek Movember
mugimenduaren berri
eman digu**

**'Non dago Amaia?',
Ugaitz Agirreren
ikuskizun poetiko berria**

**Igandean Sutegin,
Agur Etxebeste! filma**

MERKATARITZARIK
GABE,
HERRIRIK EZ



hurbiag



Gobierno Vasco

**Herri merkataritza
biziberritzeko
plan berri bat
abiarazi du Udalak**





serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Islandia

(kruzeroa)

Noruegako
Fiordoak

(kruzeroa)

Errusia

Eslovenia
& Istria

Zetako
bidea

(Uzbekistan)

BIDAIK
TALDEAN



IRTEERA 2020

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13

info@noaa.eus

noaa.eus

POESIA ERREZITALDIA "NON DAGO AMAIA?" Ugaitz Agirreren poesia "
azaroak 15, **OSTIRALA**, 19:30 Suteği **DOAN**

ANTZERKIA "Tabernaria "
azaroak 16, **LARUNBATA**, 20:00 Suteği **SARRERAK***

PELIKULA "AGUR ETXEBESTE"
azaroak 17, **IGANDEA**, 19:30 Suteği **SARRERAK***

***SARRERAK:** Aldez aurretik Bordatxon, Txirristran, Lizardin eta Noauako egoiltzan.
Noauako bazkideek prezio berezian Noauako egoiltzan aldez aurretik.



NOAUA/KO KULTURALDIA 2019

**USURBIL
AZAROA**



Albisteak iruditan

Oiartzungo ibilaldi neurtuan



Agijupens, Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta Oiartzunen ospatu zen urriaren 19an, urteroko jubilatuen ibilaldi neurtua. 600 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten. Ibiltarien artean ziren, ondoko argazkiko Aginagako Arrate Elkarteko kideak ere: Maria Angeles Arruti, Pilar Errasti, Maitere Lertxundi, Ramon Aizpurua, Miren Iparragirre, Xanti Algorta, Koro Labaka eta Mari Kontxi Maioz.

Laburrean

1969ko kintoen argazkia eskuratzeko aukera

Urriaren 26an atera zuten argazkia eskuratu nahi duenak, Laurok-era gerturatu dadila azaroaren 20a baino lehen. Abenduaren 3tik aurrera jaso ahalko da argazkia.

'Herri txiki, infernu handi' grabazioa kiroldegian

Azaroaren 14an osteguna, iluntzeko 20:00etan hasita, *Herri txiki infernu handi* saioa grabatuko dute Usurbilgo Oiardo kiroldegian. Bertaratze gonbidapena aurrez eskuratu behar zen.

Toponimiaren mapa berria

Usurbilgo toponimoen mapa berria kale-ratu du Usurbilgo Udalak. Hilabete honetako Udaberri aldizkariarekin batera banatu du. Eskuratu ez duenak udal-etxean eska dezake.

noaqua


Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Aritz Gorriti

Herri koloreak nagusitzen

Zenbaki, ehuneko, izen, sigla... Hizki eta zenbaki zopa horretan galtzea ohikoa da hauteskunde gauean. Egun datuak dida batean ezagutarazi eta sare sozialen uhinetan are ziztu biziagoan zabaltzen dira. Hauteskunde gauetako informazio uholdearen aurrean esaten ari zaizkigunak jaso eta datorkiguna interpretatzen hastea ez da kontu erraza.

Galtzaile eta irabazleen eskemak gailentzen dira bozken zenbaketak aurrera egin ahala; ahobero eta zuhurrena. Testosterona gehiegi pilatzen zaie batzuei, proiektu politiko batzuen edo besteen atzean bozkak, herritarrek daudela ahazteraino. Baina ezin ukatu babesaren ikuspuntutik badela etxe batzuetatik besteetara alde, hauteskunde gau guztietan gertatu ohi den moduan. Nagusitasuna dutenen galera eta herrien gorakada aipatu behar eta baita Vox-ekoen

presentzia, joan den igandeko emaitzetan. Itzela, zer nolako naturaltasunez tratatua izaten ari den eta nola irentsi behar dugun urrunago joan gabe, herrialde osoan bezala, Usurbilgo hauteslekuetan hiru hizkiko “alderdi” honen bozka paperak daudela ikustea. Baina ez dira ezerezetik sortu. Vox-ek ez ditu hobeago egiten bere bidelagun politikoak; norberak sar ditzala bidelagun talde honetan egoki ikusten dituenak, bat baino gehiago baitira. Ez dira ezerezetik sortu, eta argi denez, ez dira bere kabuz (zergatik ez “Vox-eoan”?) disolbatuko. Alfonbra gorria jarri diete, eta doako makillatze prozesu kanpaina egin zaie.

Guztia egunero hamaika alditan modu nabarmenean urratzen duten legaltasunaren izenean. Vox-ekoa izan zaitezke eta legez kanporatzeekin mehatxatu, denetariko kolektiboen aurka egin, Franco goraitatu... Eta hori ez da terrorismoa goratzea. Independentista izan zai-

tezke baina adi, mobilizazioetan parte hartzeagatik isunak jaso, erasotua izan eta espetxean amaitu dezakezu, hori ere legaltasun espainiarraren izenean. Esan beharrik ez da ezta, alde badela? Ikusi da eta sufritzen segi beharko dugu. Bere burua islatua ikusi nahi ez duen Espainia inposatzaile eta ukatzailea irudikatzen du; eta argi denez, Francok utzitako enkargua betetzen segitzeko, espainiar batu eta bakar hori kosta ahala kosta mantentzeko Vox arbitro ezinhoba du Espainiak.

Ez noski, Estatuak inposaketaz lotuta, agindupean izan nahi eta une oro ukatzen dituen herri anitz eta koloretsuek. Herri koloreek urrats ugari eman dituzte azken aldian. Interesgarria eta txalotzekoa benetan, herrien arteko aliantzen alde, Catalunya, Galiza, Valentzia, Balearretooko edo Euskal Herriko eragile ezberdinak jorratzen hasi diren bidea. Etor daitekeenaren aurrean, bide posible bakarra. Azaroaren

10eko hauteskundearen emaitzetan ikusi da herrioren gorakada, herritarren apustu honen aldeko babesa. Gris ilunak bide zailagoa du, errekonozitu nahi ez baina lotuta haien esanetara nahi dituzten herri ilusionatu eta koloretsuen aurrean.

Herrien ilusioak, eta itxaropen zein etorkizuna irudikatzen duten koloreak urratsak eman ditu hauteskundeetan. Eta bozketen ondotik; herriei sistematikoki ukatzen zaien autodeterminazio eskubidea ez dutela errekonozitu nahi? Errekonozitua izateko zain egon gabe, nork bere burua aitortzea baino aukera hoberik ez. Kataluniako Parlament-ak arrotza zaion Auzitegi Konstituzionalaren presioei izkin eginez, autodeterminazio eskubidea modu zehatzean gauzatu eta herri katalana errespetatzearen aldeko mozioa onartu zuen aste hasieran. Urrats bat gehiago, Kataluniako nahiz beste herrien askatasunerantz.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Ika-mika

22 hilabete pentsio publiko duinen alde borrokan

2019ko urriaren 22an, Bilboko Udalaren harmailaldian, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako pentsiodunen mugimenduak prentsaurreko bat eman zuen ondorengo hilabeteetarako aurreikusitako mobilizazio guztien berri emateko:

■ Azaroaren 16an Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako hiriburuetan manifestazioak (Donostiakoa 17:00etan Alderdi Ederretik).

■ Abenduan EAE-ko eta Nafarroako legebiltzarrean aurrean elkarretaratzeak.

■ Urtarrilean mobilizazio orokorra, hala erabakitzen

duten ikasleen, gazteen eta erakunde sindikalen parte hartzearekin, eta, baita, besteak beste, mugimendu feministarekin ere.

Azken hilabeteotan, EAE-ko eta Nafarroako pentsiodunen ordezkariok bildu gara mugimendu feministarekin, gazteekin, ikasleen sindikatuarekin eta gizarte eragile askorekin, baita CCOO, UGT, STEE-EILAS, ELA, LAB, ESK, CGT, CNT, Etxalde eta Hiru sindikatuarekin, eta, halaber, auzo eta merkatarien elkarteekin, eta denei azaldu diegu mobilizazioak areagotu eta partekatu beharra bulkada berri bat emateko, 22 hilabete

kaleetan borrokatu ondoren.

Pentsiodunen mugimendua ez da kontsideratzen mintzatu garen kolektiboaren bozeramaile, euren erabakitzen dute guztizko libertatean eta hala ematen dute ezagutzera beren inplikazioa ondorengo hiru hilabeteetako mobilizazioekin eta horixe egiten ari dira.

Berriro oroitarazten dizkizuegu Miren Etxezarretaren gogoetak, non planteatzen duen “guztiz garrantzitsua dela enpleguak, soldatek eta pentsioek elkarrekin eboluzionatzen dutela. Eta mobilizazioek aspektu hauek lotu beharko lituzketela”. Horregatik bada,

lan partekatua behar da gizarte sektore eta sindikatuen arteko elkar-lanean.

Berriro ere nabarmendu nahi dugu batasuna, autonomia, aniztasuna eta demokrazia gure mugimenduaren balioak direla eta eginahal guztiekin mantenduko ditugula nortasun ikur horiek, batasuna eta errespetua sustatuz, ez bakarrik, pentsiodunen mugimenduaren baitan, baita, pentsio publikoen eta bizitzeko baldintza duinen alde pentsiodunen mugimenduarekin kolaboratzeko prest dauden kolektibo sozial eta sindikalekin ere.

Pentsiodunak aurrera

Herri-merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plan eguneraketa martxan

Aurreko aldizkarietan berri eman bezala, 2009ko Usurbilgo herri-merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plana eguneratzera doa Udala Siadecoren laguntzarekin, azken hamarkadan sektoreak izan dituen aldaketa nabarmenen aurrean. Plan eguneraketaren nondik norakoak aurkezteko aste hasieran egin zen agerraldian, Agurtzane Solaberrieta alkateak Agurtzane Solaberrieta alkateak gogorarazi zigun sektoreak bizi duen egoera ezegonkorra izan eta ezegonkortasun horretan sakontzea ekarri dezakeela hasi Irunitetik eta Usurbilera aurreikusitako dauden 200.000 metro karratuko jardura komertzialen proiektuak gauzatzen badira. Erosketa ohituretan izan diren aldaketak ere aipatu zituen, e-saterako merkataritza elektronikoa hartu duen garrantzia.

Testuinguru zail honetan ezin garrantzizkoagotzat jotzen du Udalak, “gure merkataritza, kontsumo eta bizi ohiturak eta erro sakonak dituen gure herri izaera zaintzea. Beti diogu herri biziak nahi ditugula, eta horren bermea da herri merkataritza”.

Potxoenean egin zuten prentsaurrekoan, Siadecoko teknikari Juanjo Allur herritarrek galdera argi bat egin zuen, herri hau erronka handi baten aurrean zela gogoraraztearekin batera. “Tokiko merkataritza eredu bideragarri bat garatzeko aukerarik bada? Garai berri hauetan, egungo erronkei erantzuteko prest al dago sektorea?”.



Agurtzane Solaberrieta alkateak eta Juanjo Allur Siadecoko ordezkariak eman zituzten udal egitasmoaren xehetasunak.

PLANGINTZA BERRIA

Sektorearen egoera ezagutu nahi da lehenbizi. Horren arabera bost urterako plana landuko du Siadecok

Galdera potolo hauei erantzuteko, sektorea biziberritzeko, garai berriotara egokitu eta behar berriei erantzuteko plan eguneraketa diagnosi batekin abiatuko dute. Sektorearen egoera ezagutu nahi da hartara eta azterlan horretan oinarrituta, helburuak, lan ildoak, eragile bakoitzaren ardurak, finantzaketa definituko dituen hurrengo bost urteotarako plana landuko du Siadecok, 2009an egin zuen moduan, Udalarentzat.

Merkataritza eredu propiorantz

Proiektuaren garrantzia nabarmendu zuen alkateak, “testuinguru zail honetan, gure merkataritza eredu propioa sortzera goazelako, eskaintza berri bat egitera, ez soilik egoerari eusteko, iraultzeko baizik”. Tokiko

merkataritza proiektu anbizio-oso bat bideratzea du xede plan eguneraketak, hau gauzatzeko bide orria edo estrategia marraztea. “Nola egingo dugu? Zer bide bilatu behar ditugu? Zeintzuk dira eskaini beharreko zerbitzu berriak? Bada denda berriak irekitzeko merkatu potentzialik? Zertan izan behar dugu ezberdinak eta hobeak?”.

Elkarlanean jorratu nahi dute bide hau Udalak eta Siadecok, herritarrekin eta sektoreko eragileekin, “herri mailako erronka garrantzitsu batez ari baikara”. Diagnosi fasearen baitan, herritarrei inkestak egingo zaizkie telefono bidez. Dei hauetan parte hartzera deitzen zieten, “oso oinarri garrantzitsua” izango baita diagnosi osatu eta geroko plana garatzeko alkatearen esanetan. “Herritarren inkestek emandako informazioaren arabera, agian zerbitzu berriak izan ditzakegu etorkizunean Usurbilen”. Udalaren aurreikuspenen arabera, diagnosiaren emaitzak urtarrierako eta plangintza udaberri-

rako prest izango da.

Bi fase:

Diagnosia eta plangintza.

Diagnosia:

■ Helburua: sektorearen egoera ezagutzea (indarguneak eguneratu, hobetu beharreko alderdiak identifikatu...).

■ 600 inkesta egingo zaizkie telefono bidez, ausaz hautatutako 16 urtetik gorako herritarrei. “Lagin adierazgarria, kopuru oso altua Usurbil bezalako herri baterako” Siadecoren esanetan. Egingo zaizkien galderak: zer erosten den herriko dendetan eta zer kanpoan eta zergatik; herritarren ezaugarri soziodemografikoak bilduko dira (adina, familia kideen kopurua, erosketak nork egiten dituen...). ■ Banakako elkarrizketak aurrez aurre sektoreko eragile guztiei, 100 bat ingururi: merkatariei, ostalari eta zerbitzueta eragileei. Sektorearen uneaz, azken urteotako bilakaeraz eta aurre begirako espektatibez galdetuko zaie; tartean, etorkizunean egon daitezkeen errelebo zailtasunei buruz.

■ Bi parte hartze saio egingo dira herritarrekin, egungo egoera aztertzeko.


■ Talde eztabaida sektoreko eragileekin.

Plangintza:

■ Bi parte hartze saio herritarrekin.

■ Talde eztabaida sektoreko eragileekin.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Usurbilen ere Sare taldea osatu dute

Eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarriaren bueltan osatu du Sare herritar mugimenduak taldea Usurbilen. Bereziki, une honetan Xuak, Olatzek eta Patxi bizi duten egoera izango dute arreta gune nagusietako bat. Erle Egunerako egin du lehen deialdia Sare Usurbilek, taldeak lerrootan azaldu digunez.

NOAUA! Sare herri mugimendu bezala martxan da aspaldidunik, nolatan aukeratu duzue une hau herri mailako taldea osatzeko?

Sare Usurbil: Usurbilen presoena gaia beti egon da bizirik. Presoen gaiak Euskal Herrian bezala, Usurbilen ere garai desberdinak bizi izan ditu, egoera politikoaren arabera. Une batzuetan ere legez kanporatzeak egon dira, Herriraren kasua gertatu zenean bezala. Herriraz gain, Usurbilen Nahi Ditugu taldea dago, Kalera Kalera bezalako dinamika edota hainbat eragile politikoren proposamenen baitan presoena egoera egon da. Herritar batzuk Sare nolabait artikulatu nahian aritu gara Usurbilen. Talde bezala egitura eta antolatzea kostatu zaigu. Urteotan Sarerekin hartuemanak izan ditugu eta une honetan erabaki dugu Usurbilen ere Sare taldea osatzea. Zergatik une honetan? Beharra dagoela ikusten dugulako. Gai garrantzitsua dugu une honetan; Xua eta bere gurasoen egoera, eta une honetan plazara ateratzea ezinbestekoa ikusi dugu.

Zuen arreta gune nagusietakoa aipatu moduan, Olatz, Patxi eta



Erle Egunerako egin du lehen deialdia Sare Usurbilek.

SARE USURBIL

“Parte hartzeko gure ateak irekiak daude, ez da ezer behar. Herritar soilek parte hartzen dugu Saren”

Xua izango dira.

Bai. Gai honek nolabait behartu gaitu, jada lehendik egiten ari ginen lan isil edo apal hori kalera ateratzea. Horregatik Sareren ildo bat hori da Usurbilen, baina baita “Xua gurasoekin etxera” mugimenduan parte hartzea eta nazional mailako Sare mugimendurekin koordinatzea ere, azken finean denok zentzu eta norabide berean ari gara eta arituko gara. Eskualdean Hernani, Lasarte, Andoain eta Urnietarekin koordinatzen gara. Usurbilen bezala herri bakoitzak bere errealitateak ditu eta bere eragina ere herriaren arabera da. Eskualde mailan ekimen desberdinak egiten dira eta guk horietan parte hartuko dugu. Azken urteetan eskualdeetan Sareren partetik sentsibiltate berezia egon da larriki

gaixo dauden presoena borroka inguruan, eskualde honetan badaudelako egoera horretako presoak. Motxiladun umeen ildo ere jorratzen ari da, Xuaren egoera dela eta. Horrez gain, Saren beste ildo bat emakumea eta kartzela da. Emakumeak kartzelan jasotzen duen errepresio bikoitza; kartzela bera, eta emakumea izateak suposatzen duena kartzela matxista batean. Eta bestetik, adinean aurrera doazen presoak, eta preso horiek sostengatzen dituzten senideak, lagunak... Ikusten ari gara espetxealdiak luzatzen diren bezala, inguruko guztiak ere adinean aurrera joaten garela, eta noski, bisitak, mantenua, harremana, adinean aurrera doan pertsonarentzako oso gogorra da. Bai kartzelan daudenentzat eta bai kanpoan daudenentzat ere.

Hurrengo astei begira deialdirik baduzue?

Bai. Gure asmoa, azaroaren 24ko Erle Egunean kalean presentzia izatea da. Sare une honetan larriki gaixo dauden presoena inguruko kanpaina bat ari da

egiten, eta badago anbulantzia ibiltari bat. Erle Egunean anbulantzia hori herri erdigunean izango da. Bertan parte hartzeko deialdi berezi bat egingo diogu jendeari eta osasungintzan dabilzane. Pertsona hauek zer egoeratan dauden azalduko da, ze zailtasun dituzten, legediak zer dioten eta espainiar estatua zer ildo ari den jarraitzen. Salbuespen politika bat aplikatzen zaie duela urte askotatik. Egoera politikoa aldatua den arren, oraindik ere neurri berezi horiek mantentzen dituzte. Gure aldarri nagusia da nolabait, ken diezaietela euskal presoek, errefuxiatu eta deportatuei salbuespenezko legedia hori eta egin dezagun gatazkaren ondorioen kudeaketa humanitario bat eta legezkoa, giza legezkoa.

Olatz eta Patxi herrikideen kasuan bezala.

Olatzek eta Patxi bete dute aspaldi espetxealdiaren hiru laurdena. 12 urteko espetxealdia izanik 10 urte baino gehiago bete dituzte. Are eta mingarriagoa da, alabak kartzelatik atera beharko du, gurasoengandik bereizi beharko dute, eta gure ustez gehiegizko sufrimendua gehitzea da beharrezkoa ez den; agindu hori nolabait ezarri zen egoera erabat aldatua dagoenean. Guk egiten dugun irakurketa da, politika horiekin jarraitzea mendeku politika dela. Ez diogu inongo jarrera aldaketarik sumatzen espainiar estatuari. Guk uste dugu jarrera aldatzeko egoera ematen dela eta urratsak emango balira, gatazkaren hainbat ondorio konpontzeko moduan izango liratekeela.

“Eskubide guztiak pertsona guztientzat”

NOAUA! Eskubideon defentsa sare bat osatu nahi da ezta?

Sare Usurbil: Sareren helburua hori da, sare bat osatzea. Herritar bakoitza sare horren puntu

batean bilakatzen gara, eta ahalik eta transbertsalena izatea eta eremu gehienetara iristea da helburua. Eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrika-

tzea. Inork inondik ere ezingo luke aldarrikapen hori baztertu edo ezeztatu. Denok lekua badugu mugimendu honetan, eta gure ateak irekiak daude eta

ongi etorriak izango dira animatzen diren guztientzat.

Taldearekin hartuemanetan jartzeko: sareusurbil@gmail.com

Xua gurasoekin etxeratzeke martxa

Usurbildik Oriora

Euskal presoek sakabaketa salatzeke Disper-tsoff 2019 ekimenaren bosgarren edizioa antolatu dute azaroaren 23an Orion. Egun osoko egitaraua abiatzeko, aurren, espetxealdiaren hiru laurdenak beteta jada kalean behar zuten arren, Usurbil eta Oriotik 600 kilometrora, Valentziako Picassenteko espetxean diren Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoek eta haien alaba Xuak bizi duten egoera nabarmentzeko martxa antolatu dute hilaren 23an Usurbildik Oriora. Gogoan izan, Xuak hiru urte beteko ditu urtarrean eta egoera aldatzen ez bada, gurasoengandik bereiziko dute.

Testuinguru honetan, familia bereizi ez eta egun indarrean den legedia aplikatuz hiruren etxeratzea galdegiteko antolatu du Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak, Bordatxoko errotondan abiatu eta Orioko Bentatik barrena egingo den mendi martxa. Oinez, lasterka nahiz bizikleta gainean osatu ahalko da ibilbidea. Lekukoa usurbil-



Usurbil eta Oriotik lotuko dituen mendi martxa egingo dute azaroaren 23an.

DISPERTSIOFF 2019

Azaroaren 23ko mendi martxa Bordatxoko errotontatik abiatuko da

darrek eramango dute Orioko hondartza ondoko autopistako zubi azpiraino. "Han oriotarrak zain izango dituzte eta usurbildarren eskutik 'Xua Gurasoekin Etxera' aldarriaren lekukoa jasoko dute. Denek elkarrekin herri barnerako bidea egingo dute Ikastola pareko plazaraino eta bertan ekitaldia izango da" eta segidan egun osoz,

Disper-tsoff ekimeneko gainerako hitzorduak. "Antolatzaileek parte hartzeraz animatzen dituzte herritarrak, guztion artean, Xua beren gurasoengandik ez bereizteko ahaleginean bere alea ekarri baitezakete", ohartarazi dute.

Azaroak 23, larunbata: Disper-tsoff

Mendi martxa Usurbildik Oriora, Bordatxoko errotontatik abiatuta:

- 9:30 Oinez joango direnak.
- 10:30 Korrika joango direnak.
- 11:00 Txirrindaz joango di-

renak.

■ 11:30 Usurbildik abiatutako guztien elkartzea Orioko San Martinen, autopistaren sarre-rako errotonda inguruan. Handik Orioko hondartzarantz.

■ 12:00 Usurbildik abiatutako mendi martxari ongi etorria: oriotarrekin bat egitea hondartza ondoko autopistako zubi azpian. Oriotarrek hartuko dute lekukoa. Handik Orioko ikastolarantz. Ondoren, ekitaldia ikastola pareko plazan.

■ 14:30 Herri bazkaria Gaztetxean: babarrun jana musikaz girotua. Aukera beganoa ere izango da. Txartelak Gabonen, Aterpen eta K2n salgai. Prezioak: 20 eurotan bazkaria, haurren 5 eurotan. Bazkaria eta kontzerturako sarrerak 25 eurotan eta kontzerturako soilik 8 eurotan.

■ 20:30 Orioko Gaztetxean: Arrotzak, Kazkezur, Hartz, Rodeo eta Tropical Ice Land. Anartz, Mkol eta Arizonako Billy djak goizaldera arte.

Informazio gehiagorako helbide honetara idatzi: xuagurasoekinetxera@gmail.com

Larriki gaixo diren presoek errealitateaz jabetzeko ekimen astea

Larriki gaixo diren 21 euskal presoek errealitatea plazaratu eta haien etxeratzea galdegiteko sentsibilizazio ekimena abiatu du Sarek. Kanpaina hau irudikatuko duen anbulantzia bat ibiliko da herriz herri. Datorren astean Buruntzaldeara helduko da eta hainbat ekitaldi deitu dituzte, tartean hilaren 24rako Usurbilen.

Ekimen astea

Azaroak 19, asteartea

- 19:00 Hitzaldia Lasar-



Hainbat ekitaldi deitu dituzte datozen egunetarako.

te-Oriako kultur etxeko hitzaldi aretoan, Sareko bozeramaile Joseba Azkarragarekin eta 30

urtetik gora kartzelan egin dituen Joxe Ramon Abetxuko preso ohiarekin.

Azaroak 22, ostirala

- Sareren anbulantzia Lasarte-Orian. Mobilizazioa.

Azaroak 23, larunbata

- 13:00 Sareren anbulantzia Hernanin barrena ibili ostean, elkarretaratzea eta performance-a Plazaberrin.

Azaroak 24, igandea

- 13:00 Sareren anbulantzia Usurbilen. Ekitaldia Mikel Laboa plazan, osasungintzako langileekin. Deitzailea: Sare.

Dani Iturbe: “Gizonoi emakumeei baino askoz gehiago kostatzen zaigu medikuarengana joatea”

Azaroan mundu osoan ospatzen ari dira Movember mugimendua. Prostatako eta testikuluetak minbiziari buruzko kontzientziazio kanpaina, azaroan zehar egingo da Goierri. Dani Iturbe herritarrak mugimenduari laguntzeko bi itsulapiko jarri ditu Aitzagan eta Bordatxon, gizonezkoen gaixotasunon ikerketan laguntzeko. NOAUA! berarekin izan da mugimenduaren gaineko informazio gehiago biltzeko.

NOAUA! Movember mugimenduaren baitan Goierri sortu zenuten Moherri. Zertan datza kanpainak?

Dani Iturbe. Gizonen minbiziaren gainean kontzientziatzeko kanpaina da Movember. Gizonoi emakumeei baino askoz gehiago kostatzen zaigu medikuarengana joatea; emakumeak askoz kontzientziatuago daude bularreko minbiziarekin. Normalizat hartzen dugu emakumeak urtero errebisioa egitera joatea, gizonoi berriaz lotsagatik edo, gehiago kostatzen zaigu pauso hori ematea.



Dani Iturbek Goierri sortu den Moherri kanpainan ari da parte hartzen, Movember delako mugimenduarekin bat eginez.

MOVEMBER MUGIMENDUA

Bi itsulapiko jarri dituzte Aitzagan eta Bordatxon, gizonezkoen minbizi gaixotasunen ikerketan laguntzeko

Errebisioak egitearen garrantzia eta zerbait arraroa ikusiz gero medikuarengana joatea zein garrantzitsua den erakutsi nahi du Movember mugimenduak, eta dirua bildu ikerketarako.

Bibotea eramatea da mugimenduaren sinboloa.

Parte hartu nahi dutenek azaroa osoan bibotea eramatea da helburua ikusgarritasuna emateko. Niri ez zait modu jarraian ateratzen, kimioarekin duela gutxi amaitu dut, eta oraindik ongi denera zabaldu gabe dago, baina haziko da. Goierri bibotea txukuntzen diete nahi duten gizon guztiei ileapaindegietan, denek aukera izan dezaten parte hartzeko. Ordizian jende asko animatu

da parte hartzera, eta urtez urte gehiagora doan ohitura bilakatu da.

Usurbilen ere itsulapikoak jarri dituzue Aitzagan eta Bordatxon.

Bai, bi taberna horietan izango du aukera jendeak dirua emateko mugimenduaren alde.

Lortutako dirua zertara bideratzen duzue?

Azken hamabost urteetan, Movember Fundazioak 650 milioi euro bildu ditu. Australian hasitako mugimendua azken urteetan munduko txoko askotara zabaldu da, eta lortu den diru guztiarekin hainbat ikerketa egin ditu. Espainiar Estatuan, Bartzelonan dago Fundazioaren Ospitalea, eta mila gaixorekin egiten du lan. Munduan dauden beste zentroekin informazioa partekatzen dute, ikerketa zabalagoak egin eta lekuan lekukoari konponbideak emateko. Prostata eta testikuluen minbiziaren gaineko ikerketa finantzatzeko sortutako mugimendua da Movember, azken finean.

“Minbizia kasu asko prebentzioarekin ekidin daitezke”

NOAUA! Gizonek minbizia izatea guk uste baino ohikoagoa da. Zuk zeuk ere pasatu berri duzu, ezta?

Dani Iturbe. Ekainean jakin dut jada minbizia gainditu dudala, eta gaitz erdi. Martxoan hauteman zidaten testikuluetak minbizia, handituta neukan nerbio baten bitartez. Azken fasean nengoen jada, ez zen oso goiz harrapatutako minbizia kasua izan. Tumorarik ez neukan, ganglioetara pasata zegoen jada. Kimio gogorra eman zidaten, egunean 7 ordu egon behar izaten nuen sendagaiak hartzen. Gorputza erabat ahulduta uzten du prozesuak;

gogorra da. Behin prozesua hasita, segituan esan zidaten sendatuko nintzela, eta halaxe izan da.

Zein da gizonezkoen minbiziaren egoera egun?

Bi minbizia mota biltzen ditu Movemberrek, testikuluena eta prostatakoa. Urtean, testikulu 800 minbizi kasu berri atzeman dira Espainian, eta 40 bat baino ez dira hiltzen. Gutxi da beste minbizia batzuekin alderatuta. Askok ikertu dute azken urteetan minbizi hori, eta %5eko heriotza-tasa baino ez du. Prostataren minbiziari erreparatu, 31.728 kasu berri

atzeman ziren aurreko urtean Espainian, eta horietatik 6.061 hil egin ziren. Kasu horretan, minbiziari aurre egiteko aukerak askoz murriztagoak dira, %20ko heriotza-tasarekin. Datu horiek oso kezagarriak dira. Ideia bat egiteko, futbol partida bat jokatzen denoro, gizon bat hiltzen da espainiar estatuan prostatako minbiziagatik; alegia, 90 minuturo bat. Kasu asko prebentzioarekin ekidin daitezke, edota garaiz atzeman behintzat.

Nola ekidin dezakegu horrelako gaixotasun bat garatzea? Zeintzuk dira prebenitzeko

ematen dituzten aholkuak?

Urologoan errebisioak egitea beharrezkoa da, eta zerbait arraroa bada ez da pentsatu behar berez pasatuko dela, segituan medikuarengana joatea komeni da. Genitaletako kontuak delikatuak dira, nongo minbizia izan dudana galdetzen didatenean jendea beldutu egiten da. Gizonkeriak egiten ditugu horrelakoetan, genitalak ezin hobeto daudela esanez. Normalena da ukondoan edo bestelako lekuren batean mina izanda medikura joatea, baina urologora denean lotsa gehiago ematen digu, eta ez luke hala izan behar.

USURBILGO
denda txikien

atrakzio parke

ERRALDOIA!

2019

ABENDUAK

27-28



USURBILEN
zure erosketak egiteak **SARIA** du:
egun osoko sarrera DOAN!

20€ko
erosketaren truke
puntu1
jasoko duzu

10 puntu
lortuz gero
egun osoko
sarrera
zuretzat!

PUNTUAK
ESKURATZEKO:
azaroaren 18tik
abenduen 26ra
Usurbilgo komertzioetan



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

hurbilago

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkartea

Palestinaren aldeko eguna, Tadamunen eskutik

Zer dakigu Palestinari buruz? Galdera honi erantzuten ahalegindu eta Palestina zein palestinarrek hobekiago ezagutzeko eguna antolatu du Tadamun Usurbilgo elkargune internazionalistak azaroaren 23rako; mural margoketa, mahai ingurua eta bazkari palestinarra Aitzagan. Txartelak salgai dituzue. Hitzordu honen harira honako idatzia zabaldu du Tadamun-ek.

Palestinaren aldeko eguna

“Palestinak beti izan du Euskal Herriaren aldetik maitasun eta begirunea, gu ere herri zapaldua garen neurrian. Egia da, hala ere, maitasun hori Ezker Abertzalearen aldetik nabaria goa izan dela.

Baina zintzoak izanda eta egia esate aldera, zer dakigu Palestinari buruz? Zer dakigu palestinarrek pairatzen dituzten bizi baldintzetaz? Bertan dau den fakzioei buruz...

Hamas, Al Fata, Yihad Islamikoa, FPLP, anitzak dira taldeak... Hamas bera, begi “goxoez” begiratu izan dugu...



Usurbilgo elkargune internazionalistak mural margoketa, mahai ingurua eta bazkari palestinarra antolatu ditu azaroaren 23rako.

TADAMUN

Palestinari buruzko solasaldi bat antolatu dute Sutegin. Azaroaren 23an, eguerdiko 11:00etan Sutegin

Sarri, grina bereziz borrokatu omen zutelako Israelgo estatu monoteista sionista. Merezia du babesa? Anaia Musulmanen taldean daudela kontuan izanda...

Eta zer dakigu palestinar herriaren borroka sostengatzen duten herrialde eta erakundeei buruz... Zeintzuk dira? Eta zein herrialde arabiarrek dituzte

Israelgo Estatu monoteista sionistarekin harreman estuak? Eta ze harreman izan zuten Alemaniako SSeK eta sionistek Bigarren Mundu Gerran?

Guk zalantzak ditugu, eta zuk ere agian izango dituzu. Horrexegatik antolatu dugu Palestinaren Aldeko Eguna; bate-tik, gure elkartasun eta maitasuna mural batean irudikatuko dugu, jarraian hitzaldi bat izango dugu arestian azalduko zalantzak argitzeko asmoz.

Eta azkenik, euren kultura eta gastronomia ezagutzeko Aitzaga Elkartean bazkari goxo bat burutuko dugu. Beraz, ba-

dakizue, agenda atera eta gorde bertan azaroaren 23a.

Zatoz zure maitasun zalantza eta gose puntuarekin!”

Azaroak 23, larunbata

■ 09:00 Mural margoketa.

■ 11:00 Mahai ingurua Sutegin: “Palestina eta erresistentzia aurrera begira”. Hizlariak:

■ Fayez Badawi: Europako FL-Pko ordezkaria eta erresistentzia palestinarraren militante historikoa.

■ Aritz Saidi: Sektore energetikoa. Nazioarteko erlazioetan aditua.

■ Gabriel Ezkurdia: politologoa, nazioarteko gaien analista.

■ 14:00 Bazkari palestinarra Aitzaga Elkartean. Txartelak Aitzagan 20 eurotan salgai. Menua:

■ Entsalada: taboulé, endibia txalupatxoak.

■ Sarrerakoak: chorba (gari zopa), falafel, berenjena krema, humus eta burek.

■ Bigarrenkoak: kefta (haragi pikatu pintxoak), aza hosto be-teak, behi tadjin-a.

■ Azkenburukoak: namoura (semola eta ezti opila), ur krema.

■ Antolatzailea: Tadamun.

“Bizikidetzan sakontzeko bide-orria behar dugu”

Sorтерrien Usurbil bilakatu zen herriko plaza azaroaren 9ko Mundualdian. Herritarren arteko elkar ezagutza eta elkarbitza sustatuz bizikidetzan sakontzea helburu duen ekimeneko baloreak belaunaldi berriei helaraziz hasi zuten jaialdia, Zirimarak haur eta gurasoekin antolatu zuen familia planari esker. Herri kiroltan jolas-tuz hasi zuten arratsaldea, eta azken asteotan Orbeldikoekin batera landutako munduko dantzak plazaratu zituzten gero. Haur eta gurasoak eskutik dantzan eta jolasean aritu ziren.

Usurbila edota Gipuzkoako beste hainbat lekuetara 60. hamarkadaren bueltan penintsulako herri ezberdinetatik heldutako migranteei aitortza eginez hasi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak Mundualdia.

Ohiko estigmak zeramatzatela gaineen nabarmendu zuen alkateak. Horregatik, “aurtengoan toki berezia egin nahi diegu Katalunia, Galizia edo Extremaduratik hona etorritako herritarrei. Doakie nire aitortza. Asko ez zineten euskaldundu, baina eskerrik asko, euskara, kultura, ezkerreko balioak eta Euskal Herria geu-

reganatu genitzan egindako esfortzuagatik. Sustraiak han bai baina guk, zuen seme-alabak hemen sustraitu gintezen egindako ahaleginagatik”.

Legealdiko erronka, “bizikidetzan sakontzea”

Egun sorterri anitzetako herri-tarrena dugu Usurbil eta aniztasun hau kudeatzea erronka handizat jo zuen alkateak. Lanketarako abiapuntua argi utzi zuen; “aniztasuna ez da mehatxua, aberastasuna da”. Helburua, bizikidetzan sakontzea. Baina horretarako “bide-orria behar dugu”. Ezinbestekotzat jo zituen, “aniz-



Agurtzane Solaberrieta alkatea, Mundualdiaren hasiera ekitaldian. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

tasuna balio positibo moduan sustatuko duen herri ikuskera, jatorria edozein dela ere, pertsona guztien aukera berdintasuna bermatuko duen udal jarduna, eta baita elkar ezagutzan eta aitortzan oinarritutako ekimenak ere. Hain zuzen ere, Mundualdia horietako bat da”, alkatearen esanetan.



Web orrialdean argazki gehiago topatuko dituzue, <https://noaua.eus/galeriak/> atalean. Argazkiak: Ion Markel Saez de Urabain.

Ugaitz Agirre: “Azaroaren 15ekoa ez da errezitatze saio huts bat izango”

Datorren ostiralean Ugaitz Agirreren txanda izango da Kulturaldiarekin jarraitzeko. *Non dago Amaia?* poema errezitaldia eskainiko du usurbildarrak Sutegin arratsaldeko 19:30etik aurrera.

NOAUA! Poesia errezitaldia eskainiko duzu Sutegin. Zure poema propioak edo besterena errezitatuko dituzu?

Ugaitz Agirre: *Non dago Amaia?* poesia performantzia dela esan daiteke, parte naizen gizartea ardatz hartuta idatzitako poema propioekin osatutakoa. Emanaldiaren eskema nagusia ipuin batek osatzen du, beraz hiru kapitulu nagusi daude: hasiera, korapiloa eta amaiera. Horien arabera sailkatu ditut poemak. Lehen zatian liluramendutik esnatzearen inguruko poemak entzungo dira, hain zuzen, “Haur ipuin bat” eta “Grabitatea”. Bigarrenengoan, gizarteko arazo ezberdinak tratatzen dira eta bertan entzungo dira bestelako ekitaldietan errezitatuak ditudan “Progresua”, “Kaioak” edota “Denbora”. Hirugarren zatian, bukaera legez, arazoen irtenbidea iradokitzen saiatu naiz. Orotara hamasei poema errezitatuko ditut. Hala ere, eta hasieran esan dut, ez da errezitatze hutsa izango. Eszenaratze bat dago eta musika, antzerkia eta irudiak ere egongo dira hitzarekin batera. Olerkiak musikaren gainean errezitatuko ditut eta abestien hautaketa egiterakoan marrazki bizidunetako musika mugatu naiz. Marrazki bizidunak haurrekin lotzen ditugu orokorrean, eta horrekin jolas-tu nahi dut errezitaldian zehar: nola haur ipuin bat helduen amesgaizto bihurtzen den. Bestetik, irudiak proiektatuko dira diskurtsoaren lagungarri



Non dago Amaia? ikuskizun poetikoa eskainiko du azaroaren 15ean Sutegin. 19:30ean hasiko da, sarrera doan.

UGAITZ AGIRRE

“Non dago Amaia? poesia performantzia dela esan daiteke, parte naizen gizartea ardatz hartuta idatzitako poema propioekin osatua”

izan daitezen, beti ere haur ukitu horrekin. Eta azkenik, moztortuta agertuko naiz oholtzan antzerkiari berari laguntzeko.

Nobela bat argitaratu zenuen duela urtebete: Tximeletak bizkarrean. Poemak ere idazten dituzu. Poesia libururen bat argitaratzerik ez daukazu buruan?

Literaturaren munduan poesien bidez sartu nintzen duela hamarkada bat. Zenbait lehiaketetan garaile suertatu nintzen, baina liburu formatua ematerakoan ez dut zortetik izan. Egia da liburuak baduela pisu bat zure lanari plus gehigarria ematen diona, eta eleberriarekin zorte hori izan dut.

Esku artean ditudan poema hauekin ere saia naiteke liburu

formatua ematen, baina azken batean idatzitakoa aurkezte da helburua eta zuzeneko emanaldiak poesiarako oso aproposak iruditzen zaizkit. Beraz, ez dut lehentasunen artean jartzen poema horiekin gehi ditudan besteekin liburu bat osatzea. Oraingoz.

Tximeletak bizkarrean nobelak harrera ona izan al du?

Esango nuke baietz. Esperientzia polita izan da lehen liburuarekin izandakoa, asko

ikasi dut bidean eta pertsonalki horrekin geratzen naiz, utikan egin gabe oraingo komentario eta iritziei. Baina esan bezala, iraganean daukat nobela.

Herriko liburutegian, eta herritarren aurrean. Bertan etxean bezala sentitzen zara?

Sutegi udal liburutegian beti sentitu naiz etxean bezala, bai aurkezpena egin genuenean, bai orain liburuaz solasean irakurleekin.

Ipuin kontalarien zikloa

Ipuin kontalarien hiru saio programatu dituzte udal liburutegian. Lur Usabiaga egon zen asteazkenean Sutegin. Hauek dira datozen deialdiak.

Azaroak 20, asteazkena

■ 18:00 Pello Añorgaren saioa HH5-ekoentzat.

Azaroak 27, asteazkena

■ 18:00 Ana Galarragaren saioa 6 urtetik gorakoentzat. Zientzia oinarri dituzten kon-



Pello Añorga Sutegin arituko da azaroaren 20an.

takizun bitxiak eta esperimentu bitxiak izango ditugu”. Antolatzailea: Udala.

Errigoraren udazkeneko kanpaina abian, estreinakoz hiru saski aukeran

Martxan da seigarren urtez, Errigoraren “Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka”, zonalde hartako tokiko produktuak eta euskalgintza sustatzeko kanpainaren edizio berria. “Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz”, Errigoraren esanetan.

Dagoeneko guztiz errotua dagoen egitasmoa dugu, Euskal Herrian herriz herri auzolanean aurrera eramaten dena. Eta lorpenak aipatzeko modukoak dira. Aurreko bost urteetan saldutako ia 80.000 saskiekin milioi bat euro bideratu da Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara. Ehunka nekazarik eta 25 kontserba-etxe eta olio-errotek esku hartu dute



Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktuekin osaturiko hiru saski daude aukeran. Argazkia: Errigora.

ERRIGORAKO KANPAINA

“Saskiak azaroaren 20ra arte eska ditzakezue NOAUA! bidez”

ekimen erraldoi honetan.

Euskara plazaratzeko, “Agerraldia”

Zenbait berrikuntza dakartzat aurtengo kanpainak; batetik, bi ez, Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktudun hiru saski izango dituzue aukeran.

Ohi bezala, “saskien balioaren %25 bideratuko da zonaldeko ikastolei, Sortzeni eta AEKri laguntzera”, eta aurtengo estreinakoz, “Agerraldia abian jartzera”. Ekimen berri hau, Agerraldia, “euskara herriko plazetara” ekartzeko abiatu dute, “erromatarrek Ager Vasconum deitu zuten, alegia, Nafarroako nekazal guneek osatzen duten” eremu horretan.

Agerraldia egitasmoaren zerakin nagusietakoa “zonaldeko euskaldunak, euskaltzaleak eta

eragileak saretzea izango da”.

3 otar aukeran

Eskaera epea: azaroak 20.

Eskaerak non: NOAUA! Kultur Elkartea edo online bidez.

■ **Saski beltza (50 euro):** orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, zainzuri-krema, teilak, melokotoia almibarean, kardua, tomate frijitua, piper txorizero mamia.

■ **Saski berdea, ekologikoa (60 euro):** orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, arroza, pasta, barazki-menestra, ozpina.

■ **Saski zuria, berezia (70 euro):** orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa (kriantza), patxarana, extra brut, polboroiak, patxaran mantekatuak, txokolatezko arroak eta pikillo piper marmelada.

Xiberoako ikastolak laguntzeko elkartasun kanpaina

Urte amaierarekin batera bueltan datorkigu Xiberoako ikastolak laguntzeko elkartasun kanpaina.

Ekimen honen sustatzailerik egunotan nabarmendu dutenez, “Zuberoan ikastolak garatzen eta indartzen jarraitzeko Euskal Herri guztiko elkartasuna ezinbestekoa zaigu”. Bi ikastola ditu egun Zuberoak: 36 ikasle dituen Alopen eta 103 ikasle dituen Sohutan. Euskarak babes ofizialik ez duela eta etxeko transmisioa eteten ari dela ohartarazten dute.

Elkartasun kanpaina honek berebiziko garrantzia du beraz. Ohi bezala, Usurbila Nafartarrak taldearen eskutik heldu da. Otarrak NOAUA!



Bi otar daude aukeran: Ahüzki eta Irati.

bidez eskatu ahaliko dituzue; Bordaberri 3ko kultur elkar-tearen egoitzara etorri eta zuen izen abizenak, telefono zenbakia eta eskuratu nahi duzuen otar kopurua zehaztu.

Otarrak, NOAUA! Kultur Elkartea antolatutako abenduaren 15eko San Tomas Azokaren baitan Nafartarrak taldeak jarriko duen postuan banatuko dituzte.



Zuberoako produktudun saskien salmenta kanpaina, aspalditik xiberotarrekin hartuemanetan den herritar talde baten eskutik heltzen da Usurbila. Hartueman horren isla da baita urtero Xiberoan izaten duten hitzordua. Ipar Euskal Herriko ikastolen elkar-tearen, Seaskaren integrazio batzorde-rako laguntza biltzeko afaria antolatzen dute Urdiranben.

Usurbilgo koadrila bat joan ohi da antolaketa lanetarako. Aurtengo afaria, azaroaren 9an egitekoa zuten.

Irati otarra (52 euro)

Produktuak: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), ezti (500 g), euskal xerriki lukainak (400 g), axoa xahal-ki xehatua saltsan (640 g).

Ahüzki otarra (40 euro)

Produktuak: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), ezti (500 g), euskal xerriki pate (200 g), euskal xerriki odolkia (200 g).

Informazio gehiago:

ikaskoli.eus

EH Bildu nagusitu zen azaroaren 10eko hauteskundeetan

Bozken erdia (%48,80) jasota, Mertxe Aizpurua Arzallus Usurbilgo alkatere ohia buru zuen Gipuzkoako EH Bilduren hautagai zerrenda izan zen bozkatuena Usurbilen, azaroaren 10eko Espainiako Diputatuen Kongresua berritzeko hauteskundeetan. Segidan, EAJ, bozken ia laurdena jasota. Atzetik Podemos eta PSE, ia bozka kopuruan berdinduta, %11ko babesaren bueltan.

Apirileko 28ko hauteskundeetan emaitzekin alderatuta, bozka kopuruan gora egin du koalizioak. Aldiz, boto kopuruan beherantz Unidas Podemos-ek, EAJ-k eta PSE-k. PP, Ciudadanos eta VOX hirukoteak izan duten babesaren 163 bozkatik 142ra murriztuta, udaberriko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta.

Senatua

Senaturako Gipuzkoako EHBilduk aurkezturiko hautagaiak jaso zuten babes gehien, bozken erdia, azaroaren 10eko hauteskundeetan. Segidan EAJ-ko senatari gaiek bozken laurdena eskuratuta. Bozken %10 inguru jaso zuten PSE-koek. Gainerakoek usurbildarren %10etik beherako babes.

Gogoan izan, Diputatuen Kongresuko hauteskundeetan

	2019ko apirila	2019ko azaroa	Diferentzia
 EH Bildu	1.545 %43,95	1.591 %48,80	46 (%2,98)
 EAJ-PNV	819 %23,30	736 %22,58	-83 (%-10,13)
 Podemos	502 %14,28	382 %11,72	-120 (%-23,90)
 PSE-EE	411 %11,69	360 %11,04	-51 (%-12,41)
 PP	84 %2,39	98 %3,01	14 (%16,67)
 VOX	24 %0,68	24 %0,74	0 (%0,00)
 Cs	55 %1,56	20 %0,61	-35 (%-63,64)
 Aulki Zuriak	11 %0,31	13 %0,40	2 (%18,18)
 PACMA	26 %0,74	13 %0,40	-13 (%-50,00)
 ELAK-PCTE	7 %0,20	5 %0,15	-2 (%-28,57)
 RECORTES CERO-GV	2 %0,06	3 %0,09	1 (%50,00)
 PUM+J	-	1 %0,03	1 (%100,00)

Apirileko 28ko hauteskundeetan emaitzekin alderatuta, EH Bildu, PP, Aulki Zuriak, Recortes Cero-GV eta PUM+J izan dira bozka kopuruan gora egin dutenak.

ABSTENTZIOAK GORA

“5,61 puntu hazi zen abstentzioa azaroaren 10eko Diputatuen Kongresuko hauteskundeetan, 5,74 puntu Senatukoetan”

ez bezala, Senatua eraberritzeko bozketetan, alderdi bereko edo desberdinetako bat, bi edo hiru hautagai hautatu zitezkeen. Usurbilen, Gipuzkoako EHBilduko ordezkari Gorka Elejabarrieta Diazek jaso zituen bozka gehien.

Parte hartzeak ia 6 puntu egin zuen behera

5,61 puntu hazi da abstentzioa azaroaren 10eko Diputatuen Kongresuko hauteskundeetan, 5,74 Senatukoetan. Hemen apirilaren 28ko hauteskundeekin egin dugun alderaketa:

■ 2019/11/10: Errolda: 4.707. Kongresua: 3.272 (%69,51). Senatua: 3.265 (%69,36).
■ 2019/04/28: Errolda: 4.698. Kongresua: %75,14. Senatua: %75,10.

Hauteskundeetan emaitzak Kongresurako emaitzak
■ Errolda: 4.707.

■ Parte hartzea: 3.272 (%69,51).
■ Abstentzioa: 1.435 (%30,49).
■ Baliogabeak: 12 (%0,37).
■ Zuriak: 14 (%0,43).

Bozkek

EH Bildu: 1.591 (%48,80)
EAJ-PNV: 736 (%22,58)
Elkarrekin Podemos: 382 (%11,72)
PSE: 360 (%11,04)
PP: 98 (%3,01)
VOX: 24 (%0,74)
Cs: 20 (%0,61)
PACMA: 13 (%0,40)
Aulki Zuriak: 13 (%0,40)
ELAK: 5 (%0,15)
Recortes Cero-GV: 3 (%0,09)
PUM + J: 1 (%0,03)

Gipuzkoak Madrilen izango duen ordezkaritza

Diputatuen Kongresuan:

■ EAJ-PNV-k 2 diputatu: Joseba Agirretxea Urresti eta Iñigo Barandiaran Benito (116.125 boto, %30,57).
■ EHBilduk 2 diputatu: Mertxe Aizpurua Arzallus eta Jon Iñarritu Garcia (98.391

boto, %25,90)

■ PSE-k diputatu bat:

Odon Elorza Gonzalez (68.663 boto, %18,08).

■ Elkarrekin Podemosek diputatu bat: Pilar Garrido Gutierrez (56.787 boto, %14,95).

Senatuan:


4 senatari izango ditu Gipuzkoak. Hiru EAJ-PNV alderdikoak eta laugarrena, EH Bildukoa:

■ Maria Isabel Vaquero Montero (EAJ-PNV): 119.147 %31,94.

■ Maria Mercedes Garmendia Bereciartu (EAJ-PNV): 116.052 %31,11.

■ Luke Uribe-Etxebarria Apatategi (EAJ-PNV): 114.057, %30,58.

■ Gorka Elejabarrieta Diaz (EHBildu): 101.776 %27,29.



USURBILEN
abenduak 1
kiroldegian 11:30

SARRERAK: 7€ aldezturritik. (Bordatxo, Lizardi eta Noaua!) Egun berean 8€ kiroldegian



Uniairen 30etik
Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka
azaroaren 20ra

AGER ALDIA

ESKATU SASKIAK ETA SUSTATU ELUSKALGINTZA NAFARRA
HEGOALDEAN, SASKIEN BILIOAREN 925 BIDERATUKO DA
ZONALDEKO IKASTOLEI, SORTZENI ETA AER-RI LAGUNTZE-
RA ETA, GAINERA, "AGER VASCONUM" EAN EUSKARA PLAZARA
ATERATZEA GATORREN EKIMEN BERRIA ARIAN JARTZERA.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizun berriarekin datoz

Abenduaren 1ean 11:30ean Oiardo Kiroldegian, NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik. Adi, sarrerak dagoeneko salgai ditugu. 2 urtetik gorakoentzat 7 eurotan aurrez Bordatxon, Lizardin eta NOAUA!n bertan eskuratu ahalko dituzue. 2 urtera arteko haurtxoek sarrera doan izango dute. Ikuskizun egunean bertan 8 eurotan izango dira txartelak.

"Bizi dantza"

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, urtero moduan, haien ikuskizun berrienarekin etorriko dira Usurbila, Bizi dantza izenekoarekin. "Lurra sortu zen unetik bertatik, jirabiraka dantzari hasi zen bere burua-rena eta eguzkiaren inguruan.

Geu ere hitzaren jabe izan au-



Abenduaren 1ean, eguerdiko 11:30ean arituko dira Oiardo kiroldegian.

ABENDUAREN 1EAN

Sarrerak aldeztu aurretik eskura daitezke Bordatxon, Lizardin eta NOAUA!n, 7 eurotan

urretik dantzatzeko gara, zaldiak, izurdeak eta tximeletak bezala.

Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzeko gara. Barruak agin-

tzen digunean dantzatzeko gara. Gure kultura ospatu eta errituak berritzeko. Garen hori mugimenduan jartzeko.

Zangoak luzatuz, gerria mugituz, hegoak astinduz eta ur azpian ere dantzatzeko gara gu.

Zatoz gurekin dantzara, atera zure barruko animalia plazara!"

Informazio gehiagorako:
katxiporreta.eus

Azoka gozoenaren atarian

Urteko hitzordu gozoena ate joka dugu; 21. Erle Eguna.

Azaroak 22, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Apiterapia: Erletik sortutako produktuen onurak". Hitzalaria: Miguel Angel Jimenez.

Azaroak 24, igandea

■ 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

■ 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, eztiak, ontziratze prozesua...), postuetako salmenta, marrazki erakusketa, bideoak Sutegin. Euskal Herriko XXI. Ezti lehiaketa eta gozogintza lehiaketa.

■ 13:30 Ezti Lehiaketako irabazleak/Gozogintzako irabazleak/ Marrazki erakusketa. Ezti desberdinen dastaketa Antolatzailea: Erle Lagunak.

BAZKIDEEN TXOKOA

azaroak 16
larunbata,
20.00 Sutei

Tabernaria
antzezlanak

azaroak 17
igandea,
19.30 Sutei

Agur etxebeste
pelikula

noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean sarrerak zozketatuko ditugu

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Happening Kabienen

Joana Maiz (Harriet) nobela grafikoa aurkeztu zuten azaroaren 6an Kabienen. Joseba Larratxe marrazkilariak Yurre Ugarte idazlearen gidoia izan du abiapuntu. Senide eta lagunez inguratuta, liburuari buruzko hainbat xehetasun eskaini zituzten.

Joseba Larratxek eta Yurre Ugartek lau eskutara osatu dute Joana Maiz (Harriet) liburua. Kabieneko aurkezpena ere halaxe abiatu zuten. Xanpain botila zabaldu zuten elkarrekin, ekitaldiak aurkezpenetik baino ospakizunetik izango zuela iragarritz. “Bi urteko lana ospatu nahi genuen”. Joseba Larratxeren lehen hitzak horiek izan ziren. “Nire amak dioen bezala, gauzak ospatu egin behar dira bestela ematen du ez dela ezer gertatu”.

Lagun giroan, argitalpen berriari buruzko hainbat xehetasun eskaini zituzten. Ez da lehen aurkezpena izango, ezta azkena ere. Bi urteko lanaren emaitza ordea, hurbileko jendearekin ere partekatu nahi



Yurre Ugartek eta Joseba Larratxek lau eskutara osatu dute Joana Maiz liburua.

AZAROAREN 6AN

Kabienen, Joana Maiz “marratzu den tokian” aurkeztu zuten komikia

izan zuten. “Eta gainera, komikia egin den tokian. Komikia hemen marratzu dut”, Larratxek Kabienen duen mahaia seinatuz.

Elkarlan oparoa

Joana Maiz (Harriet) plazaratu aurretik bestelako egitasmoak

burutu dituzte elkarrekin. *Katu hegoduna* (Saure) komiki digitala egin zuten 2014an. Xabiroi aldizkarian ere badira Yurre Ugarte eta Joseba Larratxeren artean eginiko lanak. Zientzia fikziozko komiki lan mardul batean murgilduta zeudela, Joana Maiz burutzeko aukera suertatu zitzaion. Eusko Jaur-laritzaren dirulaguntza bat jaso zuten eta bi urteren buruan Harriet argitaletxearekin eman dute argitara. Zientzia fikziozko komikiak denbora batez itxaron beharko du.

Jakoba Errekondorekin egunpasa Nafarroa Behean

Argian landareei buruz idatzi dituen “111 hostoz eta orriz jantzi” izeneko antologia liburua osatu du eta azaroaren 23an Duzunaritzeko Idartia Etxaldean (Nafarroa Behea) aurkeztuko du.

Azaroak 23, larunbata

■ 10:30 Ibilbide gidatua Jakoba Errekondorekin, Idartia etxal-

detik abiatuta.

■ 12:00 Idartia Etxaldera bisita Jon Harlouchetekin, Arto Gorriak elkartearen lana eza-gutuz.

■ 14:00 Idartian bazkaria: salda/krema, espezedun behi sukalkia polenta kremarekin eta etxeko jogurtak.

■ 16:00 Jakoba Errekondoren “111 hostoz eta orriz jantzi” li-

buruaren aurkezpena.

Emanaldi berezia: Sustrai Colina, Itxaro Borda, Ibon RG eta Pantxika Maitia.

■ Prezioa: 20 euro.

■ Izen ematea: argiak100urte@argia.eus
616 79 62 84.

■ Antolatzaileak: EHKOlektiboa, Biharko Lurraren Elkartea eta Argia elkarlanean.

Harria Hitz, Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoarekin

Oriaren ibai-arroko ondare industrialean oinarrituriko ikerketa landua duen Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoak gidatuko du azaroaren 23an ospatuko den hurrengo Harria Hitz:

Azaroak 23, larunbata

■ 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.

■ 10:05 Harria hitz bisita gidatua herrigunean. Gidaria: Irati Otamendi ikerlari eta arkitektoa.

■ 11:00 Amaiera.

Erreserbak: harriahitz.eus
688818017 / info@kultour.pro

Udal aurrekontuak aurkezteko bilera erronda

Herritarren nahiz eragileen iritzia eta ekarpenak biltzen segiko du EH Bilduk hurrengo astean. “Parte hartu eta egin zure ekarpena!”, luza-tu du gonbita udal gobernu taldeak.

Azaroak 19, asteartea

■ 19:00 Txokoaldeko aurkezpena, Erroizpe elkartean.

■ 19:00 Santueneko aurkezpena, auzo elkartearen egoitzan.

Azaroak 20, asteazkena

■ 19:00 Aginagako aurkezpena ludotekan.

■ 19:00 Munalurrako aurkezpena Eguzki elkartean.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

Jon Maia bertsolaria: “Denok elkar ezagutzetik hasi behar dugu”

Mundualdiak plaza publikoaren erdigunea jarritako gaia oso hurbiletik bizi du Jon Maia bertsolaria. Migranteen semea izanik, bizitaketik abiatuta aski hunkigarria izan zen “Extremaduratik bertsolaritzara: integrazio istorio bat” solasaldia eskaini zuen azaroaren 7an Sutegin. Barrutik hitz egin zuen berak bizitakoaz, bere barne gatazka identitarioaz mintzatu zen luze zabal, arbasoek Extremaduratik Euskal Herrira etorritako bidaia abiapuntu hartuta, berak jorratu duen bideaz. Iraganaz zioen, “bigarren mailakoa sentitzen nintzen”.

Blokeak hautsi behar

Argi zioen, egungo kultur bloke hain berezitueta “ezin dugu bizi” zioen. Eskertu zion Usurbilgo herriari halako hitzaldia edota Mundualdia bezalako ekimenak antolatzea, baina nabarmen zuzenez, “norabide honetan pauso gehiago ematea”



Hezurbeltzak taldearekin kontzertua eskaini zuen Sutegin.

ezinbestekoa da. Horretarako, migranteekiko egun ditugun aurreiritzi, mamuak uxatzea. Badugu lana bere esanetan, “etorri zirenekiko estereotipoak deseraiki, begirada aldatu, aurreiritziak hautsi eta sortutako mamuak desagerrarazten”.

Egoera hau iraultzeko “bloke monolitikoak desblokeatu ditzagun, bilatu kontsentsu sozial berriak”. Gizarte gisa etorkizunera begira ditugun erronkei heltzeko abiapuntua nabarmendu

zuen. “Denok elkar ezagutzetik hasi behar dugu”, Maiaren esanetan, ezagutza faltak, beldur eta aurreiritziak ezjakintasunak sortzen dituela nabarmenduta. Eta iraganean egindako akatsetatik ikasi beharra dugula gaineratu zuen, “migrazio berriekin gauza bera ez gertatzeko”. Ohartarazi zuenez, “denok gara migranteen seme-alabak”. Eta hala ez bada, “agian izango gara. Denok merezi dugu leku bat eta aukera berdinak mundu honetan”.

“Familiak ere jendarte parekide baterantz” hitzaldia Udarregi ikastolan

Hitz-Aho guraso elkarteak eta eta Udaleko parekidetasun sailak hitzaldi bat antolatu dute, *Familiak ere jendarte parekide baterantz* izenburupean.

Jendarte parekide bat erdies- teko, “lehenik eta behin kontzientzia hartu behar dugu gaur egungo jendarte ereduak gene-

ro eta sexualitate anitzen errealitateak non kokatzen dituen”. Ez hori bakarrik. Hitz-Ahokoen ustez, “hezkuntzatik ere badaukagu zer egin berdin arteko jendarte baterantz. Familiak ere hezkuntza eragile bat izanik, badaukate honetan zer esanik eta eginik. Familiak, haur

eta nerabeen hezkuntza parekide baterantz jarri daitezke. Horretaz eta gehiagotaz solastu gaitzke hitzaldi honetan”.

Azaroak 21 osteguna

Gaia: Familiak ere jendarte parekide baterantz. 17:00etan, Ikastola gorrian.

Peña Pagola pilota elkartearen 50. urteurrena

Aurten 51 urte bete dira Peña Pagola Elkartea sortu zenetik eta 50 urte Pilota Federazioan klub bezala onartua eta inskribatua izan zela. “Hau dela eta azaroaren 24ean, Peña Pagola Elkartea sortu zuten bazkideak omenduko ditugu, gure esker ona adieraziz”. Hauxe da antolatzaileek igorri diguten egitaraua:

Azaroak 24 igandea

■ 12:00 Omenaldia bazkide sortzaileei Peña Pagola Elkartearen. Ondoren hamai- ketakoa, bertsolaria, harri-jasotze erakustaldia...

■ 14:30 Saizar Sagardotegian bazkaria. Bazkarira apun- tzeko tiketak aldeztu aurretik Elkartearen erosi behar dira, azaroaren 7tik 17ra, astelehene- tik ostiralera 19:00-20:00etara eta larunbatetan eta igande- tan 12:00-13:00etara. Prezioa 35 euro.

■ Izen-ematea irekia izango da edonorentzat.

Omenduko diren bazkideak

Bazkide guztien izenean esker ona jasoko duten bazkide sortzaileak hauek izango dira: Jose Ramon Pagola Garin, Paco Alcorta, Miguel Arrastoa, Jose Antonio Echeverria, Jose Luis Ibarburen, Jose Luis Lalin- dez, Jose Macazaga, Angel Machain (Olarri), Jose Ma- nuel Machain, Pedro Mari Machain, Jose Cruz Maiz, Jesus Olaizola.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL


Okidegia-Gozotegia
LABE-GOXO


Patriketa
barkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

56 lasterkari Behobia-Donostian

Giro benetan makurra izan zuten, baina ez ziren etxean geratu. Aginaga, Zubieta eta Usurbilgo 56 lagunek parte hartu zuten azaroaren 10eko mendeurreneko Behobia-Donostia lasterketan. "Izugarrizko datua: 33.341 izen emateetatik 27.074 atera dira gaurko eguraldiarekin. Handiak zarete denak!!", adierazi zien antolakuntzak sare sozialetan bidez, negu gorriko giroari aurre eginez, Behobia-Donostian parte hartu zutenei.

Behobia Donostia

Aginaga

Karlos Fernandez Esteban 01:17:45
Ander Aristegi Otamendi 01:35:35
Ainhoa Torcida Olasagasti 01:48:21

Zubieta

Irati Izaguirre Kastresana 01:42:16
Javier Lopez-Jacoiste Ortiz 01:45:13
Alfonso Perez Jimenez 02:12:19

Usurbil

Eneko Portu Irasuegi 01:11:58
Iñaki Añorga Unanue 01:13:53
Iñaki Gerica Juan 01:19:35
Xabier Izeta Aramendi 01:21:43
Axier Dominguez Prieto 01:21:50
Ibon Beristain Atxega 01:23:42
Rosa Uribe Navarro 01:24:25



Aginaga, Zubieta eta Usurbilgo 56 lagunek parte hartu zuten Behobia-Donostia lasterketan.

Izadi Azkonobieta Etxabe 01:27:20
Tito Izaguirre Godineau 01:27:29
Endika Mendizabal 01:27:47
Salbatore Arruti 01:27:49
Lukas Arrospide Jauregui 01:30:33
Ander Aisa Bengoetxea 01:32:15
Ander Orena Irureta 01:33:08
Iban Maritxalar Elizondo 01:34:25
Alfonso Lopez Garcia 01:37:39
Sergio Montes Guerra 01:38:45
Jokin Zubiaur Blasco 01:39:13
Pello Sasiain Martinez 01:39:40
Aroa Arruti Castresana 01:40:02
Unai Lasarte Alzaga 01:42:28
Borja Chamorro Navarro 01:42:46
Daniel Hernandez Veliz 01:45:45
Martin Alustiza Guereñu 01:45:54
Francisco Javier Rodriguez 01:46:37
Oliver Garcia Linares 01:47:22
Jon Guembe Urrea 01:47:28
Martxelo Sanchez 01:47:28
David Torcida Olasagasti 01:48:20
Eli Eizaguirre Bruño 01:48:22

Maitane Eizaguirre Bruño 01:48:23
Oroitz Altuna Ibarburen 01:50:01
Intza Makuso Iribar 01:50:57
Aitor Jauregi Urdampilleta 01:50:58
Ander Jauregi 01:50:59
Gurutze Sierra Moron 01:52:28
Maximo Garcia Sanchez 01:52:28
Sergio Garcia Sierra 01:52:28
Peru Beloki Segurola 01:53:34
Mikel Aparicio Prados 01:54:40
Gema Molina Cuesta 01:55:58
Ana Mediavilla Perez 01:55:58
Leire Errazkin Sagarzazu 02:00:35
Maialen Lizaso Muxika 02:03:09
Aritz Martin Lizaso 02:07:05
Ion Portu Irasuegi 02:11:39
Joxemari Portu Azpiroz 02:11:39
Beatriz Irasuegi 02:11:41
Javier Martinez Manso 02:12:17
Xabier Arruti Landa 02:12:18

Informazio iturria:
behobia-sansebastian.com

Irisasi BTT-koen oharra

Zabalik dago kirolprobak.com atarian, urtarrilaren 26an ospatuko den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako izen ematea. Lehen 500 partaideei txaleko bat oparituko die antolakuntzak. "Gainera, neurria aukeratu ahal izango dute". Horretarako, nahi duenak

azaroaren 20an arratsaldeko 19:00etan DYako lokalera gerturatu dadila, Irisasikoek ekipazio eskaera egingo dute. Izen ematerakoan, kontuan hartu:

1. Mailotaren neurria ondo begiratu. Ez da aldatzeko aukerarik izango.
2. Kulotea eskatu nahi izanez

gero, kontuan hartuko da gizezko edo emakumezko gisa eman den izena eta horren arabera eskatuko zaio modeloa. Ez da aldatzeko aukerarik izango. 3. Mailotaren neurria eta kulo-tearena ezberdinak baldin bada, emailaz jakinarazi: irisasibt@gmail.com

Futbola Haranen

Azaroak 16, larunbata

■ 9:30 Alebinak, Eskola Kirola: Udarregi 5B-Urnieta 6B
■ 10:30 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil A-Zarautz B
■ 12:30 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Luberri

Azaroak 17, igandea

■ 11:30 Kadeteak, areto futbola (Oiarde Kiroldegian): Usurbil F.T.-Lauburu KE Ibarra

Eskubaloia Oiardon

Azaroak 16, larunbata

Eskola Kirola

■ 9:30 Alebin neskak: Udarregi 5B-Udarregi 6D
■ 9:30 Alebin neskak: Udarregi 5A-Urnieta 5A
■ 10:30 Alebin neskak: Udarregi 6B-Udarregi 6A
■ 11:45 Infantil neskak: Udarregi A Usurbil-Elgoibar

Usurbil K.E.

■ 13:00 Senior mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Soraluce Bergara K.E.
■ 16:00 Kadete mutilak, Euskal Liga, Euskadiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Zarautz ZKE
■ 17:45 Jubenil mutilak, Euskal Liga (Euskadiko Txapelketa): Usurbil K.E.-Zarautz ZKE
■ 19:30 Senior neskek, Euskadiko Txapelketa: Urbil-Usurbil K.E.-Aiala ZKE

Kiroldegiko zelaia berritzen

Hondatua zegoen Oiardoko futbol zelaia konpontzeko lanak bideratzen ari da Udala. Egungo belar artifiziala altxa eta zer egoeratan dagoen aztertzea da, Udaberri aldizkari bidez aditzera eman duenez. Kiroldegiko pistako harmailak ere berritzekoak dituzte 2020an. Udal aurrekontuetako 90.000 euroko partida bideratuko dute lanotara.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmentan Usurbilen. 688 714 317. Deitu astean zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informak ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska

bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negozia garria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes

gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkatagi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetak kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe asegurueta, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratzen. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzate-

ke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.



Zorionak Xixili maitia!!!

Maitasun lore bat eta maskarpone zaporeko bi muxu!!! Zure ahotsean nabari da barrutik koloretazkoa zarela. Aitaxo eta amatxo.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik

edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalandata argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteak bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaia! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 14 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 19 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 20 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Azaroak 14 - Azaroak 24

Osteguna 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 23 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda azaroa

15 ostirala

- **NOAUA!ren Kulturaldia: Ugaitz Agirre-ren poesia errezitaldia.** 19:30ean Sutegiko auditorioan.

16 larunbata

- **Euskal Herriko 1. Tritikitxa Topaketa.** 12:00 Trikipoteoa Mikel Laboa plazatik. 14:00 Bazkaria Andatzpe elkartean.
- **NOAUA!ren Kulturaldia: "Tabernaria" antzezlan.** 20:00etan Sutegin. 3 euro (Bordatxon, Txirristran, Lizardin eta NOAUA!n).

17 igandea

- **Baztango itzuliaren 3. etapa.** Irteera, 7:00etan Oiardo kiroldegitik (aurrez eman behar zen izena).
- **NOAUA!ren Kulturaldia: "Agur Etxebeste" filma.** 19:30ean Sutegin.

Igandean, Agur Etxebeste! Sutegin

Patrizio Etxebestek alkatetza utzi beharko du osasun-arazoak direla eta. Gutxiak dakite benetako zergatia, ordea: inguruko herrietan argitara atera diren ustelkeria-eskandaluek pentsarazi diote hurrena bera eror daitekeela. Eta nor hobe bera ordezkatzeko eta kontrolari eusteko, Maria Luisa emaztea baino. Baina guztia ez da lehen bezain erraza izango.

Emakume loreontziak apaingarri hutsa izatea baztertuko du, eta ekinean hasiko da. Gizon kontrolatzaileak ez du kontrolatzen berak uste edo nahi beste, eta egokitu beharko du, aurrera egin. Krisi orok tirabirak eta arazoak dakartza, familiakoa, politikoa nahiz soziala izan. Baina aldaketak eta abagune handiak ere



Asier Altuna eta Ramon Agirre etorriko dira pelikularen berri ematera.

sortzen ditu. *Aupa Etxebeste!* (2005) filmaren jarraipena da Agur Etxebeste.

Azaroak 17, igandea

- 19:30 Sutegin. 6 euro. Aldez aurretik Bordatxon, Txirristran, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan. NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan eskura dezakete, aurretik eta soilik NOAUA!ko egoitzan.

Euskal Herriko trikiti zaletuen bilgunea

Trikitilari eta zaletuen topaketa ospatuko da larunbatean Usurbilen.

Azaroak 16, larunbata

- 12:00 Trikipoteoa Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 14:00 Bazkaria Andatzpe elkartean.
- Izen ematea: itxita.
- Argibide gehiago: trikitixabazkaria@gmail.com

'Tabernaria' bakarrizketa Sutegin

Tabernariak bere ohiko bezeroak bilduko ditu kaña bat ondo botatzen erakusteko. Baina, bakarrizketa aurrera joan ahala, tabernariaren desirak, zalantzak eta beldurak ageriko dira, beste gai sozial batzuek gain. Mikel Martinezek antzeztua, Patxo Telleriak idatzia eta zuzendua.

Azaroak 16, larunbata

- 20:00 Sutegin. Sarrera, 3 euro.

Datozenak

Musikarien egunean, plazara

Santa Zezili eguna, musikariena izan ohi da. Urtero moduan, Euskal Herriko musika eskolek kalean ospatzen dute. Zumartek ere bai Musikalean ekimenari esker; kalejira batekin eta Sutegin eskainiko duten kontzertuarekin:

Azaroak 21, osteguna

- 18:00 Kalejira udaletxe aurreko plazatik: trikitixa-pandero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin lagunduta eta Txaranga.
- 19:00 Sutegin: Musika Eskolako talde instrumentalak eta abesbatzak.
- Sarrera: doan.
- Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

"Zoaz pake santuan" Aginagan

Euskararen Eguna dela eta, Zoaz pake santuan antzerki saioa antolatu dute Aginagan. Abenduaren 1ean igandea-rekin, arratsaldeko 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.

- Aktoreak: Mikel Laskurain eta Ane Gabarain.
- Sarrerak 5 euro eta aldez aurretik Arrate Tabernan eros daitezke.
- Informazio gehiago hurrengo emailen: gurasoelkartera@aginaga.eskola-txikiak.eus

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta **SALMENTA**
MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

Auto Guria s.l

Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

ARATZ
zabaleta anaiak



30 urtez baserritar eta arrantzaleekin zuzenean lan egiten

·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

31 ETXEBIZITZA USURBILEN, UGARTONDO AUZOAN



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa



Garajea

Pertsonalizatu zure etxebizitza
nahi duzun modura



ZURE ETXEA IZAN LITEKE

Ez galdu aukera hau

943 30 29 20

www.sukia.com



Zure etxean zaude

Finantziatuta

